

2.011KO ABENDUAK 1

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Nerea Agirretxe Aranburu.
Harkaitz Arruti Eizagirre.
Leire Beristain Mendizabal.
Luis Berrondo Lanceta.
Iñaki Irulegi Apalantza.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamaikako abenduaren bateko hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:
2011KO URRIAREN 26 ETA AZAROAREN 3KO AKTEN ONARPENAK,
BIDEZKOA BADA.

Alkateak urriaren 26 eta azaroaren 3ko akten berri ematen du eta zinegotziak aho batez onartzen dituzte.

BIGARRENGO PUNTUA:
SANTA MARINA AUZOKO URA INSTALAZIOARI BURUZKO ALBIZTUR
ETA ERREZILGO UDALEN AKORDIOA.

Alkateak Santa Marin auzoko ura instalazioari buruz Albizturgo Udalarekin sinatu beharreko hitzarmenaren berri ematen du eta hitzarmenak literalki zera dio:

“Lehena.- Albizturgo Udalak 2010.urtean Santa Marina auzoko etxebizitzak hornitzeko ur depositu bat eta instalazioak eraiki ditu. Aldi berean, bertan kontadore bat utzi da auzoko gainerako etxebizitzak hornitzeko

Bigarrena.- Ondoren, Errezilgo Udalak Santa Marina auzoan dituen hiru baserriak hornitu ahal izateko instalazioak egin ditu eta bide batez Albizturko ur sare instalazioetako kontadoretik konexio bat egin du.

Eta ondorioz, kontratu hau formalizatuko da, honako klausula hauen arabera :

KLAUSULAK

LEHENA.- Albizturgo Udalaren ur tomatik hartzen den ura Errezilgo udalari fakturatuko zaio.

BIGARRENA .- Fakturazioa sei hilabetez behin egingo da eta prezioa aldiz, indarrean dauden Ordenantza fiskalek finkatzen dutena izango da, beti ere, gutxienezko kontsumotik gorako prezioan.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenak 2012ko urtarrilaren 1tik aurrera sortuko du eragina eta bere iraupena behin behinekoa izango da eta deuseztatze kasuan bi alderditakoren batek lau hilabetez aurrerapenez ohartaraziko du.

LAUGARRENA.- Albizturko herri-onurako arrazoiak direla eta kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean eta Errezilgo Udalak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango”.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

- 1.- Aipaturiko hitzarmena onartzea.
- 2.- Alkateari hitzarmena sinatzeko baimena ematea.

HIRUGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.

Ez dago ordainagiririk.

**LAUGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2011ko azaroaren 9tik (167/2011 Alkatetza Ebazpena) azaroaren 24ra (178/2011 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**BOSTGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

Ez dago galde-erregurik.

Gai zerrendako puntu hau dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatua izan ez denez, azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuaren 82.3 artikuluan agindutakoa beteaz, berau gai-zerrendan sartzea Udalbatzaren berrespenera jartzen da.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea Udalbatzak aho batez berresten du.

Ikusirik Gipuzkoako Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarrekin autokonpostaje bidez hondakin organikoa autokudeatzen duten herritarrei, hiri hondakinen %40ko hobaria ezartzeko aurkeztu duen alegazioa, Udalbatzak, aho batez, hobaria hau onartzea erabaki du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.